BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA SAILA

6059

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 22koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratzeko 2011ko kanpo-ebaluazioaren prozesua amaitu ondorenean, erakundeek egiaztatu duten ziurtagiri-maila argitara ematen duena.

Kulturako sailburuaren 2011ko martxoaren 2ko Aginduak, Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren ebaluazio-prozesua arautu, eta 2011n kanpo-ebaluazioaren zerbitzua jaso nahi zuten erakundeei izena eman zezaten dei egin zien.

Agindu bereko 16. artikuluan esaten denari jarraiki, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak argitara emango du 2011n Bikain-Euskararen Kalitate Ziurtagiria eskuratu duten erakundeen zerrenda eta egiaztatu duten maila, hartara bere ondorioak sortu ahal izan ditzan. Hori 53/2009 Dekretuaren 7. artikuluak finkatutakoa betez egiten da.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lehen eranskinean Bikain ereduaren arabera 2011n burutu kanpo-ebaluazioetan parte hartu duten erakundeak eta egiaztatu duten ziurtagiri-maila zerrendatzea.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, dagozkion ondorioak sor ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 22a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
MARÍA LOURDES AUZMENDI AYERBE.

1. ERANSKINA

Erakundea	Ziurtagiri-maila
Arrasateko Udala	Urrezkoa
Bermeoko Udala	Urrezkoa
Birzikla	Urrezkoa
CAVSA	Oinarrizkoa
Centro Kursaal-Kursaal Elkargunea S.A.	Zilarrezkoa
Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A., CAF (Irungo lantegia)	Zilarrezkoa
Copreci S. Coop.	Zilarrezkoa
Elay Taldea	Urrezkoa
Elgoibar Ikastola. P.M Urruzuno S. Coop.	Urrezkoa
Encartaciones S.A.	Oinarrizkoa
Galdakao-Usansolo Ospitalea	Oinarrizkoa
Gipuzkoako Emergentziak UTE	Oinarrizkoa
Gipuzkoako Foru Aldundia	Zilarrezkoa
Ilarki Elkargoa	Zilarrezkoa
Mendaroko Ospitalea	Zilarrezkoa
Ortzadar S.L.	Oinarrizkoa
Osakidetza Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea	Oinarrizkoa
TSST Tranvia San Sebastian Tolosa S.A.	Zilarrezkoa
Zumarragako Ospitalea	Oinarrizkoa